

# DROGETENITTURRI


DROGETENITTURRI  
Ermuko Euskal Aldizkaria 0.zka

## 20 urtez hegan



# drogetenitturri

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 173. alea 2009ko azaroa



**UGARRO**  
AHOLKULARITZA FISKALA,  
JURIDIKOA  
ETA KONTABILITATEKOA



*Mutua General de Seguros*

Fernando Orbe. ekonomista  
Juan Jose Gorritxategi. abokatua

Zubiaurre, 27  
177 postakutxa

*ugaro@ugaro.com · forbe@ugaro.com*

943 17 43 44

Faxa. 943 17 54 58

# TXALAPARTA ABERNA

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata.
- ...

**Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!**

**Enkarguak  
943030299**

**Txalaparta taberna - Erdikokale 13 (Ermua)**



**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)  
943 17 93 50.  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Estibalitz González,  
Asier Ibaibarriaga,  
Alazne Aiestaran,  
Eneritz Aranburu, Olatz Gil  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Drogeteniturre.

**LAGUNTZAILEAK:**

Igone Amesti, Patxi Lopez,  
APFE, Justo Azagirre, Idoia  
Carracedo, Jon Irazabal eta  
Fede Iturriagagoitia.

**ARGAZKIAK:**

Asier Ibaibarriaga, Iratxe  
Uribelarrea, Eneritz  
Aranburu, Santos Vega,  
Alboka Musika Eskola,  
Estibalitz González eta  
Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

688 63 28 76.

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Aritz eta Ekaitz Muñoz, Jon  
Arano eta Ane Loiola.

**TIRADA:**

2.200 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/94.

*Drogeteniturrek ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

Gure parajeetako txoririk ttikiena izan arren, harro-harro eta buztana tente baino tenteago ikusiko duzu beti. Bide bazterreko taket gaina edo zintzilik dauden zapata batzuen barrua dira bere talaia edo ezkutaleku maitatuenak. Altan dagoenean, arrak txorrotzio ikaragarriak egingen ditu, bere tamainarekin bat ez datozenak. Hainbat kabi gozo egin ondoren, auzoko eme guztiak berau bisitatzera behartzen ditu; trebeenek, bi eta hiru eme dituzte neska-lagun. Ongarai aldean leku estimatua da beraien ztat, eta handik eta Hanbrera bitartean zientoka ibiltzen dira.

**Txepetxa** Chochín  
Troglodytes Troglodytes



## Hilabete honetan...

ELKARRIZKETA .....4-7 Drogeteniturre, 20 urte	BOTEPRONTOA .....20 Jose Antonio Unanue 'Txanga'
MALLABIAN ZER? .....8-9 Betearte eskonbrera	KIROLZALE .....21 Arantza Moreno
ERREPORTAJEA .....10-11 Errepide nagusiak (IV)	ANTZINAKOAK.....22 Ermua eta Mallabiko argazkiak
TALDE-TXOKO .....12 Gazte Asanblada	SALEROSKETAK .....23 Saldu, erosi edo agurtu
SAN MARTIN .....13-16 Argazkiak, irabazleak, giroa	IRITZIA .....24 APFE jokariak Zaldibarrera
MOTZEAN .....17 Hirugarren Motor-jaiak	KALEKO INKESTA .....25 Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
ERMUAN ZER? .....18-19 Alboka abesbatza Turkian	AGENDA .....26 Abenduko agenda

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## Drogeteniturrri, 20 urte

1989. urtean Drogeteniturrri aldizkaria kalera irtetzen lehen aldiz. 20. urteurrenean, aldizkariako koordinatzaile izandakoei elkarrizketa egin diegu.

1. Zein urtetik zein urtera egon zinen aldizkaria koordinatzen?
2. Zer dela eta hasi zinen?
3. Zelan egiten zen lan? (antolamendua, bilerak...)
4. Zenbat kolaboratzaile zegoen?
5. Non zegoen lokala? Zelakoa zen?
6. Zein bitarteko fisiko zenituzten?
7. Zein motako informazioa edo artikuluak kaleratzen ziren?
8. Drogeteniturrrik, urteak joan ahala, eboluzioa izan duela esango zenuke?
9. Zer botatzen duzu faltan aldizkarian?
10. Zelan baloratzen duzu esperientzia?



## Josu Etzaniz

(1993tik 1999ra)

1. Aldizkariaren sorreran ez zegoen koordinatzailearik, 0 zenbakia (1992ko San Martin Azokaren ostekoa) erredaktatzea talde lana izan zen, eta gero Eibarko '...eta kitto!' aldizkariaren lokalean hiruzpalau pertsonen laguntzaz maketatzea lortu genuen. 0 zenbaki hori guretzat proba zen eta ikusi genuen aldizkari bat ateratzeko gai ginela. Orduan koordinatzaile bat beharrezkoa zela ikusi zen. Ni 1993an bertan hasi nintzen eta 1999ko otsaila arte egon nintzen. Beraz sei urte.

2. 1991-92 aldean EHUk kazetaritza ikasten ari nintzen, Eli Txurruka eta Ainhoa Delgadoren gela berean, eta eurek esan zidaten Eus-

kal Birusa euskarazko aldizkari bat kaleratzekotan zebilela. Interesgarria iruditu zitzaidan Ermuan halako komunikabide bat sortzea eta gogo handiz taldean sartu nintzen. Ordurako jada San Martin Azoka martxan zegoen, arrakasta gero eta handiagoz, eta aldizkaria taldearen beste pausu bat zen.

3. Aldizkaria normalean hilaren bukaeran ateratzen zen, eta horretarako hilaren hasieran bilera bat egiten genuen, zenbaki horretan zertaz hitz egingo genuen erabakitzeko. Gero pare bat aste uzten genuen bakoitzak bere lana prestatzeko, eta beste astebete behar izaten zen lan guztiak jaso, ordenagailura pasatu (hasieran batez ere testuak paperean jasotzen nituen), maketatu, inprentara eraman, aleak jaso eta banaketa egiteko. Kaleratu ostean, beste bile-

## "Hasieran gogoia besterik ez genuen, diru gutxi eta baliabiderik ez"

ra bat egiten genuen aurreko alea baloratzeko eta hurrengo zenbakia prestatzeko.

4. Alde batetik erredakzio taldea zegoen, erregulariki idazten zuten 8-10 lagun. Bestetik, gaiaren edo sekzioaren arabera laguntza eskatzen zitzaizkien eta noizean behin idazten zuten kanpoko kolaboratzaileak, dozena erdi inguru.

5. Hasieran lokalik ere ez geneukala uste dut, baina handik gutxira Santa Anako lokala utzi zigun Mari Luz Yarzak, eta bertan ibili ginen urtetan biltzen eta lan egiten. Nahiko handia zen

eta leku egokia iruditu zitzaigun bertan ibili ginen bitartean.

6. Hasieran ezer gutxi, gauzak egiteko gogoia bai, baina ordenagailurik ere ez. Anaitasuna ikastolako ordenagailu bat erabiltzen genuen Estibalitz Gonzálezek eta neuk testuak 'pikatze' (MS-DOS programa zahar eta zatarrean, oraindik Windows-ik ere ez zegoelako). '...eta kitto!'n maketatzen genuen, beraiek tresneria hobea eta esperientzia handiagoa zutelako. Hasieratik pare bat urtera eta aldizkaria aurrera zihoala ikusita, gaur egun 'prehistorikoa' emango lukeen Macintosh-a erostera ausartu ginen. Ordurako nola maketatu eta diseinatu ere ikasita genuen eta berau erabiltzeko moduan ginen.

7. Ermua eta Mallabiarekin orokorrean erlazionatutako gai anitz: aintzinako kontuak, kale inkestak, hilean bertan gertatutakoak, euskararekin edo euskal kulturarekin harremana zuen edozer, Ermutik pasatzen ziren pertsona ospetsuei elkarrizketak... denetarik.

8. Argi dago. Hasieran gogoia besterik ez genuen, diru gutxi eta baliabiderik ez. Denborak aurrera egin ahal, diru-iturria ugalduz joan



**ILEAPAINDEGIA**  
**Izaskun**  
 Goienkale, 9 (Plaza San Martin)  
 48260 Ermua Bizkaia  
 Tel. 943.17.66.90  
**ILEAPAINDEGIA**

komunitateak  
 aseguruak  
**San Pelayo**  
 aholkularitza  
 fiskal eta juridikoa  
 Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



**PUB YOMY**

**Zubiaurre  
 kalearen  
 bihotzean**

zen, soberan izan barik, eta pertsona bat kontratatzea lortu zen. Ordenagailu hobea erosi zen, lokal propioa, egitura finkoa... Hori guztia aldizkarian ikus zitekeen, kalitatearen gorakadan islatzen zen. Hasieran helburua zenbaki bat ateratzea izan zen, gero hileroko hileroko ateratzeko gai izatea, gero kalitatea hobetzea... Gauzak gero eta hobeto egiteko modua izan dela uste dut.

9. Egia esan, gauza handirik ez. Ni orain Durangon bizi naiz, baina hileroko jasotzen dut eta nire jaioterriko gauza askotaz enteratzen naiz. Beti hobetu daiteke, baina orokorrean lan ona egiten ari zarete.

10. Oso esperientzia baliagarria izan zen. Nire benetako lehenengo lana izan zen eta horrek gerora nire ibilbide profesionalean asko lagundu dit. Gainera, Ermuan horrelako komunikabide baten beharra zegoen, euskara eta euskal kultura aldarrikatuko zituen. Euskararen inguruan azken 20 urteetan Ermuan bizi izan den gorakada eta normalizazioa ezin go zen ulertu Drogeteniiturririk barik, San Martin Azoka barik eta Euskal Birusaren beste hainbat ekintza barik. Horretan apurtxo bat lagundu badut, pozik!

**“Aldizkaria 20 urtez hileroko argitaratzea, behin ere kale egin barik, ez da makala”**



### Aitzol Uriarte (1999tik 2000ra)

1. Data zehatzak ez dituz gogoratzen, Josu eta Alaznaren tartean egon nintzen.

2. Kazetaritza ikasten hasi nintzen eta gogoia nuen idazteko. Askotan gehiago ikasten da praktikatzen klasean baino.

3. Ale bakoitza argitaratu ostean balorazio bilera egiten genuen eta hurrengo prestatu. Lan banaketa egiten zen eta lan hori data ja-

kin baterako entregatu behar zen, maketatu eta inprentara bidaltzeko. Gero ale batzuk postaz bidaltzen ziren eta beste batzuk etxez-etxe banatu.

4. Zortzi bat izango ziren, gutxi gora-behera.

5. Santa Anako lokal txikitxo bat zen. Kalefakziorik ez eta hotz itzela egiten zuen neguan. Ez zegoen txarto, baina apur bat aldentuta zegoen. Gaur egungo Elexoste askoz hobeto dago kokapen aldetik.

6. Macintosh ordenagailu bat. Horrekin maketatzen zen aldizkaria.

7. Herriko jendeak gainontzeko herritarrak hobeto ezagutzeko moduko notiziak izaten ziren. Eta orain ere horrela dela esango nuke.

Herriko elkarteek eginiko lana, edo pertsonen esperientzia konkretu eta bereziak aditzera ematen ziren. Informazio instituzionala ez zen askorik sartzen, euskararekin zerikusirik ez bazuen, behinik-behin.

8. Horretarako ale zaharrak hartu eta ondo aztertu beharko litzateke. Baina uste dut aldaketa nagusiak itxura aldetik izan direla, aldizkariaren edukia oso antzekoa da azken urteetan. Inpresio hori dut, behintzat. Eboluzioa positiboa da, zaila da jausi hori ematea.

9. Maiztasuna. Posible baltz ondo legoke hamabostero kaleratzea, baina oso zaila da jauzi hori ematea.

10. Esperientzia bikaina

solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



Drogeteniituri, 173 zkia.

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21  
ERMUA



izan zen, oso garai polita. Eman nuena baino askoz gehiago jaso nuen. Gogoan dut, adibidez, Josu Etxanizek maketatzen irakatsi zidala, goizero lokalean elkar-tzen ginen eta pare bat orduz aritzen ginen. Gerora oso baliagarria izan zait maketatzen jakitzea. Drogeteniturrri eta Euskal Biruseko jendearen lana eta konpromisoa azpimarratzekoak dira. Aldizkaria 20 urtez hilerro-hilero argitaratzea, behin ere kale egin barik, ez da makala. Edo San Martin Azokak lortu duen erreferentzialtasunean erreparatzea besterik ez dago Euskal Birusaren lanaz konturatzeko. Lan fina egiten duen jendea ezagutzeko aukera izan nuen.

## Alazne Aiestaran (2000tik 2007ra)

1. 2000. urteko maiatzetik 2007ko abendura arte.

2. Garai hartan, egun desagertuta dagoen Ermuko Telebistan ari nintzen lanean eta kazetaritza ikasketak bukatu berri nituen. Aitzolek utzi behar zuela koordinatzaile lana eta bertan hastera eskaini zidaten. Egia esan, erronka bat zen niretzat herriko aldizkaria zuzentzea.

3. Ni heldu nintzenean baliabide materialak gutxi ziren: ez zegoen ganorazko

egoitzarik eta tresneria zaharkitua zegoen. Antolamenduari dagokionez, hilean behin gaiak erabakitzeko bilerak egiten genituen erredakzio taldekoek, lanak banatu eta kolaboratzaileak deituta, prozesua hasten zen.

4. 2000-2005 tartean kolaboratzaile asko izan ziren, 10-12 inguru. Gerora, partaideen kopuruak behera egin du etengabe.

5. Elexostera etorri baino lehen 2002an, Santa Anan Euskal Biruseko bazkide batek utzitako lokal batean geunden. Ez zituen gutxieneko baldintzak betetzen Drogeteniturrri aldizkaria egiteko. Hasierako hilabeteetan, '...eta kitto!' ra joaten nintzen aldizkaria maketatzera. Izan ere, ni koordinatzaile izan nintzen bitartean, Koldo Mitxelena '...eta kitto!' aste-kariaren koordinatzailea izan zen Drogeteniturrri maketateaz arduratzen zena.

6. Lanean kontratupean koordinatzaile bat zegoen; maketatzaileak, publizistak eta banatzaileak ez zuten kontraturik baina diru saria jasotzen zuten. Gainerako kolaboratzaile eta erredakzio taldeko kideek borondatezko lana egiten zuten.

7. Urteen joan etorriarekin gai eta sekzioak aldatuz joan dira. Batzuk desagertu egin dira besteek lekua uzteko. Badira hala ere, denboran iraun duten gai edo atal batzuk: kale inkesta, elkarrizketa, boteprontoa esaterako.

8. Nire ustez 20 urte ez dira alferrik pasatu. Pentsatzen dut Drogeteniturrri denborarekin lortu duela herrian erreferente bat izatea. Hori egindako lanari esker izan da, jorratutako gai eta bertan parte hartu duten guztiengatik. Aldizkarian protagonista izan direnengatik, bai informazio eman digutenengatik eta baita euren produktuak iragartzeko gugan sinestu duten guztiengatik.

9. Kolaboratzaile finkoak. Hau da, borondatez lana egiteko jendea, hilabetero testuren bat idatziz.

10. Eskola paregabea izan da niretzat Drogeteniturrriren koordinatzaile izatea. Alde batetik, kazetaritzari dagokionez, profesioaren alde guztiak ezagutzeko aukera eskaini didalako eta bestetik, harreman pertsonalei dagokionez, gauza eta esperientzia asko bizi eta ikasi ditudalako.

Dorleta Vidal

**“Erronka bat zen  
niretzat herriko  
aldizkaria zuzentzea”**



**QUETZAL**  
gazte denda  
Baietz topatu  
gustuko  
zeozer?  
Goienkale 9  
943 17 00 65

**Proba-Leku**  
Neapaindegia - Estetika  
  
Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

**URDAITEGIA - CHARCUTERIA**  
**MAYTE**  
Plaza del Mercado  
Tel. 17 24 12  
**ERMUA**

  
**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**  
Zearreko buelta 3 L8 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

# Betearten ez da Gipuzkoako etxeetako hondakinik isuriko

**M**allabiko udalak irailaren 8an jasoko eban Gipuzkoako etxeetako hondakinak Iruatxetako isurtegian hartzeko ustezko asmoaren berri Ekonor enpresaren bitartez, FCC-ri lotuta dagoana. Ustezko operazio hau, Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioek babestua eta Lakuaren onarpenarekin adostua izan zan. Mallabiko herrigunetik 500 metrotara dagoen Betearte eskonbrera, ABG Servicios Medioambientales-ek bereganatu eban, hau Ekonor, Urbaser -ACS-ren kapitalarekin- eta Befesak osatzen da-

belarik. Isurtegi honek hondakin ez arriskutsuak hartzeko baimena dauka, baina ez etxeetako zaborrak hartzekoa. Udalak herrigunetik dauken gertutasune kontuen hartute, eta era honetako isurtegi batek herritarrengan sortu leikezan osasun arazuei erreparatute, prentsaurrea ataratzie erabaki eban urrixen. Bata eta bestearekin berba egin ondoren, konpromiso idatzi bat lortu dau udalak, non hiru enpresetako ordezkariexek sinatute esaten daben ez dala era honetako zaborrik Betearten sartuko. Bestalde azaroaren 7xen harritar tal-



de bat Iruatxetara urreratu zan eskonbrera honen nondik norakuek jakittekoko as-

moz Juan Mari Antxia eta Felipe Azagirrereren eskutik.

Enertiz Aranburu

## Santa Zezilia eta Gaztañerre



Azaroaren 21ien ospatu zan urtero legez Santa Zezilia, musikarixen zaindarixaren omenezko kontzertue. Adolfo Jainagaren ikasliek izan ziren girue berotzen, Mikel Núñez durangarrak pianuen lagundute. Iratxe Uribelarreak zuzendute Mendibileko abeslarixek Camalondo, Loreak udan ihintza bezala eta Bautista Basterretxe kantatu zittuen. Jasokundeko neskek Oh Happy Day! Tele-

bista saiorako prestatzen ari diren kantak eskaini zittuen. Besteak beste, The Mamas & The Papas-en California Dreaming, M-n Ezten-en Beldurrak Ahaztuta, Sister Act pelikulako I Will Follow Him eta Abbaren Dancing Queen. Kontzertuaren ondoren tanbolinien erretako gaztaina beruek jateko aukerie emon eban beste behin Orraittio Euskara elkartiek, ardauro gozo eta guzti.



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...  
 eta hostalarien umore ona*



**UDALEKO BERRIAK**

Azaroaren 13an komisioan onartu zan tasa igoerarik ez dala egongo 2010ean, hau da, zaborra, ura, kotxien zerga, kontribuzioa eta abargaittik ordaindu beharrekoa 2009an bestekoa izango dala. Bestalde, udazken-negu sasoiko obrak egitten be laster hasiko dira. Parkeko lurraren egoera txarra dala eta 56.000€ko inbertsioa egingo da berau konpontzen. Mikel Zaratte kaleko etxebizitza komunitate batek igogailua ipintzeko eskaera egin dabela eta, Elizoste kaleko espaloia zabaldu egingo da eta Mallabarrengo etxe blokeen kontran dauezan aparkalekuetan kotxiek baterian izteko moduen ipiniko dira. Guztira proiektu honek 101.000€ko kostue izango dau.

**ASTO PROBAK**

Mallabiko Udalak antolatute, Txondor Herri Kirol elkartiek eta Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundeak lagundute, Bizkaiko txapelkaterako puntuagarririk izango diran asto probak jokatu dira abenduko zubixen. Zapatuen, hilaren 5ien, arratsaldeko 18:00retan hasiko da norgehiagoka. Excavaciones Bilbao, Imanol Erleaga, Maiora Elkartea eta Urrola izengo dira lehenengo egunien. Astelehenien hilaren 7xen, Satzibar, Urkiaga, Artabilla eta Mañukobentak jardungo dabe. Martitzenien, hilak 8, azkeneko egunez, Artabeitti, Urrola II, Leire Uranga eta Goizeder. Asto irabazliek 390 euro, mantie eta garaikurre jasoko dau. Informazio gehiago [www.mallabia.org/agenda](http://www.mallabia.org/agenda) web gunien.

**MALLABIHO ADITZ-TAULEN LIBURUA**

Badihardugu Euskara Elkarreak Mallabiko aditz-taulen liburuxka argitaratuko du. 16 orrialde izango ditu eta bertan, gehien erabiltzen diren aditzak jasoko dira, Mallabin esaten den modura. Liburua prestatzeko, Pello Mugarzaren 'Mallabiko euskara' n oinarritu dira eta Peioren laguntza jaso dute egiterakoan. Helburua, "herritarrek haien jakinmina asetu eta zalantzak argitzeko gida moduko hau esku artean izatea da - Badiharduguren arabera-, eta kontsultarako erabiltzeko aukera izatea". Liburuxka abenduko Drogeteniturrirekin batera banatuko da.

**KALTE UGARI MALLABIHO AUZO PISTA ETA ERREPIDIETAN**

Azken astiotan gertatu dan auto-istripu larrixena goguen daukagu danok, Eltzubi parien kotxe bik alkar jo eta pertsona bat hil zanekue. Euritiek kalte ugari sortu dabiez Mallabiko hainbat auzoetarako bidietan be. Asuntzerako bidie moztute dau eta Ermutik Beranotxikirekuen be sortu zan lurperixa bat. Kaltiok, urek denporiaz eragitten daben higadura edo erosioaren ondorioz sortu dira. Urkixarako pistan jazotakue, ustebakue izen da baina. Kontu haundixaz pasatu biher dabe kotxiek eta kamioek galazota dauke handik ibilttie. Bestalde, Urkixa etxazpiko kurban, Goittondotik behetik gora gatzozela be sortu zan luizia eta trafikue herrittik bideratu biher izen zan. Frontoi atzeko motie be nahiz eta iez konpondu zan, ez deutse eutsi azaro hasierako eguraldi txar honi.

**SAN MIGEL EGIHO ERMITTA**

Berano Nagusian dago kokatuta. Oinplano errektangularrekoa, ageriko manposteriazko murrak eta batzuk harlanduzkoak daukaz. Bi zertxa gainean lau isuriko teilatue dauke. Kanpai hormarik bakoa, kanpaia arkupearen aurrealdeko hutsarte baten aurkitzen da. Arku zorrotzdun atea eta hegoaldean dinteldutako hiru leiho, burdinezko barrotez babesturik. Lurra egositako baldosez osatua da eta korua egurrez; hona dinteldutako ate baten bidez sartzen da. San Migel Arkanjelen irudi bat eta bi koadro dagoz bertan: bat Jesusen Bihotzarena eta Aingeru Guardakoarena bestea. Ondo zaindutata dago eta auzotarren bertako jaia irailaren 29an, San Migel egunez ospatzen zan. Azken urteetan baina, aurreko domekan izan dira festak. Gaur itxita aurkitzen dan ermitaren elizpean, aintzina kanposantua egoan. Ermita honek ere Mallabiko parrokiatik abiatzen ziren letaniak edo errogatibak hartzen zituen; hain zuzen Aszentzio aurreko hiru egunetatik batean.

\* Urriko Drogeteniturrin kaleratutako Mallabiko pilotarien historia, Albino Praderak Valentin Mugarzari kontatuta zegoen. Argazkiak, Indalecio Ojangurenen artxibokoak ziren.

**SAN ANTONIO** OKINDEGIA  
GOZOTEGIA



Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)



**ZABAL**



**ERMUA**

**GARAGARDO** CERYECERIA  
NHEV



**ZYTik**

OTARTEKO eta  
INPORTAZIOZKO  
GARAGARDOtan  
berezitasuna

943 17 39 78

# Errepide nagusiak (IV)

**Oraingo honetan bidez bide baino, agiritegietan dokumentuz dokumentu ibili gara arakatzen, Ermua eta bideak uztartu guran. Hona hemen topatutakoak.**

**B**izkaian XVIII. mendea hartzen dute historiagileek errepedegintzaren loraila bezala, ordukoak baitira errepide garrantzitsuenak egiteko eztabaidak eta lanak. Joseba Agirreazkuenagaren 1987ko 'Bizkaiko errepedegintza' lanak laguntzen digu hau guztia kokatzen: "Konturatu behar dugu nekazaritza-mundua autokontsumoaren ekonomian murgildurik bizi zela gehien bat oraindik, baina hiriko jendea, ordea, interaldaketako ekonomian oinarritu behar zuen. Guzti honegatik, hiri hauek interesatuena izango dira errepedegintzan".

## Durango-Eibar

XVIII. mende horretakoak dira Ermua zeharkatzen duen errepideetako baten lehen aipamenak, herriaren erdi-erditik igarotzen zena hain zuzen. M<sup>a</sup> Angeles Larreak, 'Bizkaiko bideak XVIII. mendearen bigarren erdi aldean' 1974an argitaratutako bere lanaren orrialdeetan, zehaztasunez azaltzen dizkigu errepide horren gainekoak:

*"Durangoko Merindadeko herriek bi errepide zabal-*

*tzeta proposatu zuten: Durangotik irten eta bata Arabako mugaraino eta bestea Deba errekarren bailararekin bat eginez, Gipuzkoaraino. Urkiolako portua zabaltzeari ekitean, interes zuzena zuten herriek gastuei aurre egin ezin eta Merindadeko Gipuzkoa aldeko herriei eskatu zieten laguntzeko -Durango, Garai, Berriz, Zaldibar eta Mallabiari hain zuzen ere-. Azken horien baiezta baldintzatua izan zen: bi errepideak batera egin*

*beharko ziren. Bakoitzak bere interesen alde egiten zenez ez zen auzi eta eztabaida faltarik izan. 1779ko uztailaren 30ean eman zen Ermuko bidearen lanei ekiteko agindua eta 1782an geldiarazi egin ziren. Interes ekonomiko handiak bateko eta diru falta besteko, bi urtez egon ziren lanok bertan behera lagata.*

*Ermuko biztanle askok armak egitea eta apaintzea zuen lanbide eta armok saltzeko ezin aproposago iruditu zitzaizen bidea zabaltzearena. Euren asmo nagusia errepidea Ermuaren erdi-erditik pasatzea zen, paraje arriskutsu eta bakartiak saihestu eta bidaiariak herriko etxeetan erraztasunez ostatu hartzeko. Ermuarren*

*eskaera bidezko eta zentzuzko moduan hartu zen.*

*Ermua Merindadekoa ez zenez -Hiribildua izanik beste erregimen juridiko bat zuelako-, ez zuen bideen obretan inoiz parterrik hartzen, baina oraingoan bai, prest agertu zen dirua emateko. Errepide hori ordaintzeko ardo azunbre bakoitzeko 4 marabedi gehiago eskatzen ziren Durangaldekoko 13 herrietan eta Ermuan. Berrito ekiten zaio errepide zabalteari, baina Urkiolako bidearen aldeko herriek kexu agertu ziren oraingoan ere eta 1785ean hiru aldiz geldiarazi behar izan ziren lanok.*

*Korrejidorea, Jaurerriko agintari nagusia, Gaztelako erregeak lurralde honetan*



Herritarrak 1914an Eibar-Aginaga tarteko errepidea zabalten. Eibarko Udal Artxiboa. Indalecio Ojanguren Fondoak.

**DO**  
Mouth

Drogeteniituri, 173 zkia.

**OSASUNA ETA EDERTASUNA**  
**ILEAPAINDEGIA**  
**ESTETIKA**

*Marfil*

**FISIOTERAPIA**

943 17 28 09  
Goienkale, 12 - beheka

**Infreñu**  
**Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com





Kaltxangoko 'Kamiñu barrixak' 1951 an, umeen jolasleku kotxerik ez zebilenean.

zuen ordezkaria zelako, errepide biak batera egitearen alde agertu zen, baina lanak behin eta berriz geldiarazi ziren harik eta lanei jarraipena emateko behin betiko agindua eman arte, 1787ko otsailean Carlos III erregeak berretsia. Bi urte geroago, 1789ko otsailaren 24an, katea ipini zen Olarreagan eta Jose Tomas de Eizagirre ermuarra jarri zuten bidesaria kobratzen. Hona prezioak: zamari handiak 4 marabedi, txikiak 2; bi gurpileko gurdiak erreal 1, lau gurpilekoak, 2 erreal.

Gurdia hagin edo llanta zabalakoa ez bazen edo ortze-iltzeak bazeuzkan, bidea gehiago apurtzen zenez, esandakoaren bikoitza ordaindu behar zen”.

Bide hori, lehen mailakotzat hartua, gaur egun Udaltxe eta Elizaren artean donana da eta orain noranzko bakarrekota bada ere, jatorrian haranzko zein honanzko norabidea zuen. XX. mendean autoen joan-etorria ugaldu zenean, beste errepide bat zabaldu zen herriatik ez pasatzeko, herritarrak ‘Kamiñu barrixak’ modura

**“Krisi sasoietan,  
errepidegintzan ibiltzen  
ziren ermuarrak”**

izendatu eta gaur egun Bizkaia Etorbidea izenekoa. Bide berri horrek ikusmira handia zuen, herriko jendea bertara joaten baitzen automobilak ikustera, eta gainera, hain laua zenez, umeek bertan jolasten zuten kotxerik ez zebilenean.

#### Trabaku gainera arte

Bestalde, mende berekoa da baita ere Ermutik Aranzigana-Trabakura arteko errepidearen lanen amaiera. 1919an, II. Mundu Gerrate osteko armagintza-krisialdiaren ondorioz, bailarako eta zehazki Ermuko familia asko egoera latza jasaten ari ziren. Ezbeharren bat gertatzeko beldurrez, alkateak mesedez eskatu zion Bizkaiko Diputazioari ekiteko lehenbailehen errepidearen lanei, egoera larrian zeuden familiei soldata bat ziurtatu ahal izateko. Herriko jendea behargin bezala hartuta, urte batzuk lehenago egin zen ere Eibartik Arrate-Aginagana arteko errepidea. Ondorengo urteetan amaitu zen Ermuko Albarraundi harrobiko harriz eta kare-harriz gogortutako Trabakura arteko bidea, auzolanean pikatxoi eta palari gogor ekinez egindakoa. Zati batzuk eskasagoak ziren; gurdien errobe-

rak zulgune sakonak egiten zituzten lekuri aldapatsuenetan eta toki batzuetan, eurien ondorioz, lurra bigunduta eta putzuz beteta egoten zen ia beti. Bide-zati horien zainketak eta hobekuntzak potolotzen zuen batik bat urteroko aurrekontua.

Gaurko honetan errepideak, jatorrian errege-bideak izan ditugu hizpide. Bide zabal eta zainduak beti ere, joan-etorri handikoak eta bizitza, aurrerakuntza eta merkataritzaren ardatz izandakoak. Bide esanguratsuak izan arren, ikaragarria zen beste bide xumeago batzuk haien inguruan eratu zuten sarea: bidezidor, estarta, gurdibide, zaldi-bide, baso-bide, andabide, galtzada eta, zelan ez, Done Jakue bidea bera ere hor zeuden N-634 eta abarrok egin aurretik.

Eta har dezagun nazional hori, errepide horren amaierarekin batera gure azken geralditxo Compostelan egin behar dugu-eta. Datorren hilean, bidaia-lagun fidel hori, Obradoiro plazan dugu hitzordua, eta Santiagoren hilobia bisitatu ordez, ermuar batena ezagutzeko beta izango dugu. Ordura arte, ondo-ondo ibili!

Estibalitz González

**ARTARRAI**  
OPARI DENDA



Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19  
ERMUA

**OUTUMURO KAFETEGIA**

- Kafe bereziak
- Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan zabalitzen dugu

**Cable Spot**



25 urteko esperientzia dugu antena kolektiboak eta atezain automatikoak instalatzen.

Zure antena TDTra egokitu.  
ETEN ANALOGIKOA  
GERTU DAGO!

**EUSKALTELEN BANATZAILEA**

Telefonia mugikorra, zuntz-optikoa,  
banda zabala, kable telebista... euskaltel

**ERMUA. San Pelayo 4 behea. 943 172314**

## Gazte Asanblada

**Sortu berri den talde honen lehen bileran 60 lagun elkartu ziren. Horren ostean ez dira hainbeste gazte bildu eta taldeak burutu nahi dituen asmo guztiak betetzeko partaidetza handitzea ezinbestekoa du. Animatu eta parte hartu!**



### - Zein urtetan sortu zen taldea?

Ermuko Gazte Asanblada, 2009ko, maiatzaren 29an sortu zen. Hala ere, zera esan behar da: ideia talde txiki bati bururatu zitzaioela, astero biltzen zen eta taldearen egitura, ezaugarriak, egin zitezkeen ekintzak eta abar adosten joan zen talde hori. Bilera deialdi bat egin zuten eta maiatzaren 29an, 60 pertsona baino gehiago elkar-tu ginen.

### - Zeintzuk dira zuen helburuak?

Ermuko Gazte Asanbladaren helburuen artean, herriko gazteon artean autogestioaren bidez, jarduera desberdinak burutu ahal izatea legoke, bai pertsonalki beteko gaituztenak, eta baita gure herriaren irudia hobetuko dutenak. Gure ustez, Ermuko gazteria oso banandua dago, koadrilak lokale-tan sartu eta ez dugu aukerarik beste herriko gazteekin harremanik izateko, gure koadrilako gazteak baino ez ditugu ezagutzen. Nahiko indibidualista da gure gizartea berez eta horrelako jarrerara azalduz ez dugu lortuko sozializazio kolektiboago bat. Beraz, gure helburu nagusia, Ermuko gazteria biltzea da, guztion artean hainbat ekintza burutzeko eta herrikoen arteko harremanak sustatzeko.

### - Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Ostiralero biltzen gara, arratsaldeko 18:30ean Eskilarapekon, eta edonor etor daiteke. Azkenaldian oso jende gutxi biltzen gara eta zaila egiten zaigu hainbat ekintza burutzea. Beraz, batzarretara etortzeko deialdia egin nahi dugu, askotan irakurri eta entzun den esaldi hau berriz ere... 'Animatu eta parte hartu! Denok gara Gazte Asanblada!'.  
- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

### - Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Egin ditugun ekintzen artean, 2009ko uztailaren 11n Orbe Kardinal Plazan prestatu genuen Herri Bazkaria aipa dezakegu. Santixauetan, kalean txosnak ipintzeko itxaropena genuen, baina Udaleko hainbat zinegotzirekin batzar asko izan ondoren, batetik bestera bueltaka ibili eta azkenik alkatearekin ere batzartu ostean, ezezkoa eman ziguten eta lokal batean jarri behar izan genuen Ermuko Gazte Asanbladaren txosna. Negurako prestatzen ari garen otzara ere aipatu behar dugu. Eskilarapekon dago eta errifak dagoeneko salgai daude. Lehenengo saria aipatu otzara da eta bigarrena Donostiako 'La Perla' talasoterapian, bi per-

tsionentzat zirkuitua. Zozketa abenduaren 18an arratsaldeko 18:30ean, Eskilarapekon egingo da. Kamisetak atera genituen, Bartzelonako, Barrikada Zapatistako bi kide ere etorri ziren Eskilarapekora gurekin hitz egitera... Orain arte egindako ekintza guztiez gain, datorren urterako beste hainbat prestatzen gabiltza: Baldespina parkeko errekararen garbiketara, SOS Racismo-rekin bilera (inguruan zabaldu behar dituzten zentroei buruz hitz egiteko), zine-foruma... Eta lan gehien eskatuko duen Gazte Eguna, baina hori eguraldi ona egiten duenerako utziko dugu. Horretaz gain, kontzertuak, tailerrak, hitzaldiak, bertso saioak ere egingo ditugu. Baina horretarako jendea behar dugu. Beraz, gurekin aritzeko prest daudenen laguntza eskertuko genuke.

### - Zuekin harremanetan jartzeko?

Ermuko Gazte Asanbladak bloga du: <http://ermukogazteasanblada.blogspot.com>. Bertan hainbat berri idazten ditugu eta argazkiak ere baditugu. E-maila: [ermukogazteasanblada@hotmail.com](mailto:ermukogazteasanblada@hotmail.com). Hala ere, ostiraletan 18:30ean Eskilarapekora etortzea izan daiteke erarik errazena gurekin harremanetan jartzeko.

Olatz Gil

**ARRIETA CORDEVI**

Elektratresnak,  
telebistak, bideoak,  
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**MUGA**

**KALORIK**

San Pelaio 4A behea  
Telefona: 17 64 77  
ERMUA

**AKADEMIA**

**ERMUA INFORMATIKA**

TRESNERIA ETA OSAGAI  
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g  
Telefona (943) 17 90 38

**IZOTZ**  
KONJELATUAK

Ermuko Merkatua,  
54 eta 55 postuak  
943 17 41 01  
Arrasateko Merkatua  
943 77 05 98





## XX. San Martín Azoka

Txaloak, zorionak, animuak eta goraipamenak besterik ez ditu jaso Euskal Birusa Elkarteak, azken **20 urte** hauetako San Martín Azokaren antolatzaileak. Talde eragilea txikia den arren, ikaragarria da mugitzen duen herritar kopurua. Aurten **201** kolaboratzaile egon dira musutrukeko lan gogotsua egiten, **201** lagun ilusio berak bultzatuta: ermuar guztientzat erreferente den jaiaren parte aktiboa izatea. Eta **29** izan dira jaia ahalbideratu duten talde eta erakundeak.

Argi geratu dadila:

**DENON ARTEAN EGIN DUGU  
POSIBLE GUREAN  
PAREKORIK EZ DUEN  
JAI ERRALDOI HAU!**

eskerrik asko danori! o **Talogintza:** Begoña Aginaga/ Maria Totorika/ Marijose Goiogana/ Maddi Goikoetxea/ Miren Astarloa/ Mari Karmen Urkidi/ Lourdes Arrizabalaga/ Nati Yarza/ Berta Yarza/ Aintzane Mallea/ Piedad Lauzurika/ Mari Paz Araiztegi/ Mari Nieves Arregi/ Tina Perrino/ Lucia Alegria/ Maite Areitioaurtena/ Maribi Bilbao/ Juanita Azpiazu/ Maritxu Etxeberria/ Maite Alzola/ M<sup>a</sup> Felisa Zenarruzabeitia/ Odile Guirado/ Naiara Gallastegi/ Haizea Manso/ Hiart Redondo/ Idurre Zuazua/ Johanna Fernandez/ Gurutze Txurruka/ Arantza Cañameres/ Eneritz Arriaga/ Irune Yarza/ Lorea Txapartegi/ Iratxe Arrizabalaga/ Naroa Bustos/ Maite Yarza/ Enaitz Mugerza/ Maite Mugika/ Maitasun Idigoras/ M<sup>a</sup> Asun Aranburu/ Rubén Rivero

**Muntaia/ desmuntaia:** Justo Azagirre/ Bea Narbaiza/ Esteban Goikoetxea/ Begoña Fernández/ Iñaki Delgado/ Endika Fernández/ Oletxeo Gaztiak

**Ticketak/ Errifak:** Rosa Bañuelos/ Idoia Narbaiza/ Yolanda Unamuno/ Natalia Arrieta/ Dorita Apoitá/ Joseinas Larrañaga/ Iñaki Totorika/ Dani Dominguez/ Edurne Madariaga/ Roberto Bilbao ' Bilbo ' /Jabi Vidal/ Iker Saenz de Zaitegi/ Goiatz Mingez/ Alberto Belar/ Jone Redondo/ Iratiz Prieto/ Outomuro, Txalaparta eta Infreñu tabernak/ Ermuko Merkataria eta Ostalarien Elkarteak

**Txahala:** Oier Egaña/ Iñaki Bildosola/ Unai Ciarsolo/ Nerea Otxoa/ Aroia Lejardi/ Elena Antón/ Olatz Gil/ Txomin Espilla/ Gorka Alzaa

**Txikurixak:** German Pérez/ Cristina Alonso/ Felix Cuadrado/ Iñigo Gimeno/ Laura Gómez/ Nora Gastón/ Monica Barrutia/ Jabi Oneka/ Dabid Patxon/ Antxon Ziarsolo/ Oskar Morales/ Thomas O ' Callaghan/ Arantxi Perosanz/ Jose Antonio Martinez ' Carbajo ' / Julen Berriozabal/ Nerea Gimeno/ Roge Bouza/ Pablo González/ Mertxe Rodelgo/ Andoni Esmeralda/ Alazne Astarloa/ Gari Kuadrado/ Ander Barambio/ Eneritz Gerra/ Ainhoa Ogiza/ Enaitz Mugerza/ Iratxe Odriozola/ Ane Odriozola/ Oihane Uriarte/ Nerea Vergizas/ Iker Hidalgo/ Eba Garcia/ Nahikari Benito/ Patrizia Mugika/ Izaro Zuazua/ Unai Holguin/ Maren Agirregomezkorta/ Jokin Diez/ Aitziber Berribeitia/ Iker Ganuza/ Julen Olaizola/ Ioritz Rasero/ Odile Guirado/ Naiara Gallastegi/ Hiart Redondo/ Idurre Zuazua/ Haizea Manso/ Sara Iglesias/ Oihane Vega/ Aintzane Delgado/ Edu Izarra/ Ander Idigoras/ Iñaki Elgea/ Eli Areitioaurtena/ Juanjo Gorritxategi

**Aurreko/ondorengo egunetan:** Maria Unanue/ Olatz Madinabeitia/ Esther Larreategi/ Juan Antonio Izagirre/ Izagirre sendia/ Juantxo Iruguenpagate/ Esther Astarloa/ Alberto González/ Higinia Solozabal/ Moo González/ Gaizka Zamakola/ Mila Mazorriaga/ Juan Angel Aiarzagüena/ Migel Angel Agirre/ Goizargi Amesti/ Jon Telleria/ Ainhoa Delgado/ Ramón Redondo

**Udaleetako langile/erakundeak:** Patxi López/ Fernando Aranberri/ Ermuko Udaleko Kultura saila/ Ermuko Udaleko Euskara zerbitzua/ IMD-UKE Ermua/ Iker Iriondo/ Mallabiko Udala/ BBK/ Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila

**Epaimahaia:** Begoña Fernández/ M<sup>a</sup> Asun Ardanza/ Ziriako Ortiz de Zarate/ José Benito Beobide/ Juan Mari Totorika/ José Ramon Agiriano

**Bestelakoak:** Juanmi Bravo/Jon Larrañaga/ Javier Mendikute/ Santos Vega/ Beñat Ugartetxea/ Felipe Zelaieta

**Erakusleiho lehiaketa:** San Antonio okindegia/ Casado optika / Quetzal, Idoia Goikoetxea, Angela, Margel, Blush, Vieco, Izagirre eta Ramos jantzidenda/ Marina oihaldenda/ Sagardui poltsak/ Solozabal eta S. Pelajo estankoa/ Miguel eta Danotz harategiak/ Txutxerias eta Cris gozodenda/ Mariasun eta Eguzkilorre loradenda/ Enter Informatika/ Ocon eta Gadifot argazkidenda/ Urreta burdindenda/ Orbe pertsianak/ Ermu Kolor margo-denda/ Senen, Egurrola eta Yonari bitxidenda/ Marfil, Monje eta Paris ilea-paindegia/ Totem estilistak/ Alboka Musika Eskola/ Natalia Arrieta/ Lorea Perosanz

**Bordatzaileen erakusketak:** Alberto Zuazua/ Elizabeth Aldalur/ Aketegi Kiroak/ Bienvenida Amillategi/ M<sup>a</sup> Dolores Izagirre/ M<sup>a</sup> Espe Zubizarreta/ Mari Feli Zubizarreta/ M<sup>a</sup> Carmen Albizu/ Esther Albizu/ Maitasun Idigoras/ M<sup>a</sup> Paz Olabarri/ Mari Nieves Gastón/ Maribi Bilbao/ Isabelita Orzaiz/ Puri Solozabal/ Inmaculada Solozabal/ Higinia Solozabal/ Olaizola Iurrindegia/ Idoia Goikoetxea/ Eli Areitioaurtena/ Txindurri Dantza Taldea/ Ignacio Urreta/ 26 de Abril Zirkulu Kulturala/ José Antonio Fernández Celada eta Ermuko Udaltzuta

**Taldea:** Euskal Birusa Elkarte Kulturala/ Leku-Eder Elkarte/ Lobiano Gastronomía Elkarte/ Kaltxango AEK Euskaltegia/ Alboka Musika Eskola/ Txindurri Txistu eta Dantza Taldea/ Alargunen Elkarte/ Antxitxiketan Aisialdi Taldea/ Eskilarapeko Ateneoa

**Baserriak:** Miguel Angel Mugerza/ Eitzaga-Barrenengoa baserria eta bertako astoa/ Aitzol Uriarte/ Angel Uriarte/ Estakua-goiko baserria/ Barrenetxe baserria/ Anittu-goiko baserria/ Areitioiko Barrenengoa baserria/ Agarre-goikua baserria

**Etxekoak:** Joseinas Larrañaga/ Marines Txurruka/ Gaizka Areitioaurtena/ Nagore Espilla/ Rosa Jaussi/ Alicia Lorenzo/ Estibalitz González/ Asier Ibaibarriaga/ Manuel Moreno/ Nerea Berriozabal/ Eli Txurruka/ Alazne Aiestaran/ Nerea Izarra/ Piedi Eizagirre/ Markos Gimeno/ Dorleta Vidal/ Igone Amesti/ Ane Sáenz

**ESKERRIK ASKO EUSKAL BIRUSEKO BAZKIDEEI,  
AHAZTEN ZAIGUN BATEN BATI ETA OROKORREAN  
ERMUKO HERRIARI!**



san martin azoka taloileak postuak erainhaia txerria



ASTOBUSA ZUBIURREN GORRA  
ETA BEHERA



IDIAZABAL GAZTA DASTAKETA



PLAZA ETA INGURUA  
JENDEZ GAINEZHA



TALO IHASTAROA



IDIAH PROBALEKUN



AURTENGO  
BERRIKUNTZEN  
ARTEAN,  
BALDESPINA  
PARKERO  
ANIMALIAK



THAHALA ERRETZEN



BASERRITARREZ JANTZITA



ZANPANZARRAK



ANIMALIAK IRUSTEN



GAZTAINERRE JENDETSUA



### TXERRIAREN ERRIFAREN IRABAZLEAK

Urtero egiten den txerriaren errifan hauek izan dira irabazleak: Lehenengo saria (txerria edo 300 euro), Jose Antonio Camachok irabazi du, 4152 zenbakiarekin. Bigarren sariaren irabazlea José María Fernández Pérezentzat izan da (landetxe batean asteburu pasa bi lagunentzat), 6390 zenbakiaren jabea izateagatik.

### SAN MARTIN AZOKAKO SARIAK

Aurtengo epaimahaian honako hauek izan ziren: Bizkaiko Erlezain Elkarteko Jose Benito Beobide, Mendi Nekazaritza Elkarteko Juan Mari Totorika, Idiazabalgo gazta epailea den Jose Ramon Agiriano, Ziriako Ortiz de Zarate, Aukera Berdintasunaren Saileko Begoña Fernándezek, Mari Asun Ardanza zinegotzia eta Asier Ibaibarriaga Euskal Birusaren izenean. Euren erabakia:

### FRUTA ETA ORTUARIAK

1. saria: Mila Amillategi, Mallabiko Barrenetxe baserrikoa.
2. saria: Alejandro Arrieta, Markinako Xemein gain baserrikoa.

### GAZTA

1. saria: Florencio Txurruka, Markinako Barroeta Torre baserrikoa.
2. saria: Patxi Baskaran, Markinako Santa Marina baserrikoa.

### OGIA

1. saria: Luis Mari Osa. Mallabiko Mañe baserrikoa.

### EZTIA

1. txillar ezti saria: Valentin Llona, Zornotzako Urikoa baserrikoa.
1. milalore ezti saria: Jesús Olaizola, Gernikakoa.

### SAGARDOA

1. saria: Jose Antonio Bilbao, Markinako Axpe baserrikoa.

### TXAKOLINA

1. saria: Jose Antonio Bilbao, Markinako Axpe baserrikoa.

### AIPIAMEN BEREZIA (SALTOHIRIK THUKUNEMA)

Maria Pilar Mallabia, Mallabiko Agarre baserrikoa.

### ESKAPARATE LEHIAKETA

Bigarren urtez, Mariasun loradendak jaso du eskaparate lehiaketako lehen saria. Txarriboda zeinen txukun adierazi duten baloratu du epaimahaiak, "detailerik ez da falta eta ezer ez dago soberan", diote. Bigarren saria Senén bitxidendentzat izan da, estilo minimalistan piperrak harribitxi bihurtu dituztelako. Epaimahaia honakoek osatu dute: Estibalitz González (Euskal Birusa), Lorea Perosanz eta Natalia Arrieta (artistak).



### BORDATZAILAK



### ARTOA GARANTZEN





AZO HAREN LAGUNTZAILERAKO BATZUKI...





## Hirugarren Motor-jai arrakastatsua



Hirugarren Motor-Jaia ospatu zen urriaren 24an, Dakota tabernak antolatuta. Guztira 200 motor inguru bildu ziren Probalekun antolatzaileen arabera, tabernaren kanpoaldean, eta Euskal Herriko hainbat lekutatik etorritako motorzaleek parte hartu zuten: Azpeitia, Azkoitia, Donostia, Leioa eta lurrekoek, besteak beste. Antolatzaileak, Mallabiko Carmen eta Paki, Dakota tabernako jabeak, gustura geratu ziren 3. edizio honen emaitzarekin: *“Euria egin zuen momentu batzuetan, baina hala ere,*

*lagun asko bildu ginen. Pentsatutako ekintza denak aurrera eraman genituen eta sariak banatu genituen parte hartzaileen artean, nagusi zein umeen artean”*. 2006an lehen jaia antolatu zuten eta hori izan da orain arte arrakastatsua, euren arabera. Kolaboratzaile gutxi dituzte, euren lagunak besterik ez, baina hala ere, 2010ean 4. motorren jaia presatzeko asmoa dute.

## Hilak 25, Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna

Azaroaren 25a, borroka eta errespetuan oinarrituriko emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna eskatu eta aldarrikatzeko eguna da. Aurtengo kanpaina gaztediari zuzenduta dago. Ermuko Udaleko Aukera Berdintasunerako Sailak argitu duenez, *“bideoklip bat grabatu da Legazpin eta horrekin eta gida batekin genero indarkeriari buruzko kontzientziario eta sentsibilizazio lana egingo da ikastetxeetan eta gazte-taldean artean”*. Horretaz gain, bloga ireki da: <http://avatarberdintasuna.blogspot.com>. Bestetik, kanpainaren ikurra (pasa den urteko puntu morea) berriro erabiliko da. *“10.000 ale banatu-ko ditugu, etxeetan, dendetan eta bestelako tokietan jartzeko. Era berean, 3.000 pegatina partituko ditugu”*, diote. Horretaz gain, azaroaren 25ean herri kontzentrazioa plazan egingo da, 19:00etan, eta bertan adierazpen instituzionala irakurriko da. Egitaraua hainbat ekimenez osatuta dago eta horien artean, Jabekuntza Eskolak antolatutako ikastaroa dago, azaroaren 28an.

## 68 lagun aurtengo Berbalagunen

Ermuko Berbalagun 09/10 edizioan 68 lagunek hartuko dute parte, 11 taldetan banatuta. Hauek ondorengo ordu eta lekuetan biltzen dira: astelehenetan, 18:00etan Jai tabernan;



astearteetan, 10:00etan Beer Stationen, 17:00etan Hanigansen, 18:00etan Jai tabernan eta 19:00etan Ilun tabernan; asteazkenetan, 20:00etan Hanigansen; ostegunetan, 18:00etan Jai tabernan, 19:00etan Erretena elkarteetan eta 19:30ean Jai tabernan (ermuarrez aritzen direnak); ostiraletan, 10:00etan Beer Stationen eta 19:30ean Txantxikun. Talde hauetan euskaraz berba egiteko konpromisoa hartzen duen edonork har dezake parte.

### ZIKLO-KROSA ONGARAIN

Ermuko Ziklo-Kros Sari Nagusia ospatuko da Ongarain abenduaren 5ean, zapatuan, José Agustin Fuentesen Oroimenezko lasterketa. 10:00etan 30-40-50 urteetako gizonezkoak eta neska aterako dira, 11etan kadeteak, 12:00etan juniorrak eta 13:00etan 23 urtetik beherakoak eta elite kategoriakoak. Froga hau ‘Ermuko Txirrindulari Alkartek’ antolatzen du eta herriko hainbat enpresen laguntza izan du. Lau ermuar egongo dira parte hartzaileen artean, kadete mailakoa bata eta junior mailakoak gainontzeko hirurak.

### ACONCAGUARI BURUZKO DIAPORAMA

2008ko abenduan Artarrai Mendi taldeko 4 mendizalek Aconcaguara igo zuten (6.959 m.). Horren inguruan jasotako dokumentu guztiekin diaporama prestatu dute. ‘Aconcagua: Expedición Tenneco’. Diaporama abenduaren 2an, asteazkenean proiektatuko da, Lobiano kulturgunean 19:00etan.

### BERTSO JAIALDIA

Bertso saioa antolatu du azaroaren 28rako, 22:15ean Lobianon Euskal Birusa Kutur Elkartek. Bertan, Joxe Agirre, Amaia Agirre, Xabi Paia eta Ainhoa Agirreazaldegi izango dira. Sarrerak Elexosten egongo dira salgai hilaren 26an, 19:00etatik 20:00etara. Sarrerak 10 euro (7 euro Euskal Biruseko bazkideak) balio du.

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

**EGaña**  
ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK  
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

**LONDON**

Bar London  
Komentukua 2, Ermua  
Tlf: 943173312

# 2015eko Ermua ideala eraikitzeko bidean

**Etorkizuneko ametsetako Ermua eraikitzeko foroa sortu dute hainbat gaztek, enpresarik, hezitzailek, merkatarik eta politikariek, besteak beste. Taldea 15 egunean behin elkartzen da Lobiano Kulturgunean.**

**E**rmuko hogeita bost lagunek osatzen dute, sortu berri den herritarren foroa. Foro horrek 2015. urteko Ermua iraunkorra eraiki nahi du, azpiegitura, gizartea eta heziketa kontuan hartuta. Talde honetan parte hartzeko gonbidapena 60 lagunei egin zitzaian, *“azken urteetan herrian zerbaiten eragile izan direnei”*, diote taldekoei. Azkenean 25 lagunek osatutako taldea sortu zen. *“Gazteenak 23 urte ditu eta nagusienak jubilatutak dira. Gainera gizonezko eta emakumezkoen kopurua berdintsua da”*.

Hobest aholkularitza-enpresak egiten ditu zuzenda-

ritza lanak bileretan, eta bertan parte hartzen dutenak ez dira bere karguaren edo lanbidearen ordezkari bezala aritzen. *“Bakoitzak bere izenean hitz egiten du”*, diote Udaletik.

Dagoeneko 2 bilera egin dituzte eta horietan aurrerantzean landu beharreko ildoak zehazten joan dira: egiturak, eredu ekonomikoak, gizarte-ereduak, berrikuntza ereduak...

*“Bileretan metodologia lantzen da eta ez bakarrik ideiak”*, argitzen dute taldeko kideek. Horretarako, galdera bat edo bi egiten dira eta 4 taldetan banatzen dira, horiei erantzuna eman ahal izateko. *“Ez dira erru-*



*dunak bilatzen, irtenbideak topatu nahi dira”*.

## Prozesu teknikoa

Hurrengo bilera abenduaren 1ean egingo da, 17:00etan. Aurrera eraman beharreko proiektuak zehaztu eta gero, prozesu teknikoa hasiko da, ekimenaren bideragarritasun ekonomiko eta legaltasuna aztertzeke, besteak beste. Gainera, bileretan parte hartzen dutenek, proiektuen

garapenean ere esku hartuko dute, *“eta hori izan daiteke, agian, foro honen alderik berritzaileena”*, diote.

Bileretan hartutako erabakiak komentatzeko, ideiak eta iritziak emateko, Google Groupsen bloga du taldeak. *“Kontaktua mantentzeko balio digu foro honen, astean zehar dokumentuak konpartitzeko”*, argitzen dute taldekideek.

Dorleta Vidal



**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPUNKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2  
Tel. 943 17 66 34  
Tel. mugikorra 630 01 13 41  
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60  
48260 ERMUA (Bizkaia)

**MENDIOLA**  
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19  
Telefonia 943 17 22 43

48260 ERMUA  
(Bizkaia)

**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56      Diputazio, 5      ERMUA



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia	- Klarinetea
- Biolina	- Panderoa
- Biolontxelo	- Perkusioa
- Bonbardino	- Pianoa
- Flauta	- Saxofoia
- Kantua	- Trikitrixa
- Gitarra	- Tronboia
- Gitarra elektrikoa	- Tronpeta
- Gitarra baxua	- Txistua
- Lengoaia musikala	

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



# Alboka abesbatza 'Istanbul Koro Günleri'n

**Alboka abesbatzak Turkiako 'Istanbul Koro Günleri' nazioarteko jaialdian parte hartu zuen azaroaren 5etik 9ra. Esperientzia horren berri jasotzeko Alboka Musika eskolako zuzendaria den Eva Zubizarretarekin egon gara.**

**M**usikari esker, Alboka abesbatzeko abeslariak sarritan egon dira atzerrian: duela hiru urte Budapesteko musika eskolen jaialdi batean parte hartu zuten, Roman egon dira eta baita Parisen ere. Aurten, aldiz, Turkiako 'Istanbul Koro Günleri' koroen jaialdian parte hartu dute. Notre Dame de Sion lizeoan, Horan Armeni Kilisesi eliza armeniarrean eta Mu-vaffak Benderli Salonu auditorioan eskaini dituzte euren kantuak. *"Nahiz eta esperientzia oso polita izan den, oraindik apur bat ikasi eta hobetu behar dugula ikusteko balio izan digu"*, dio Eva Zubizarretak.

Urtero antolatzen den jaialdi honetan, Albokako abeslariak Europa osoko 16 abesbatzekin egon dira: alemaniarrek, italiarrak, turkiarrak, finlandiarrak eta frantziarrak, besteak beste. Euren harremana izan dute, nahiz eta hizkuntza traba bat izan den. *"Batez ere nagu-*

*sientzat -dio Evak- umeak eta gazteak ondo moldatu dira ingelesarekin, baina gu... Interprete bat izan dugu eta harek ere turkieratik ingelesera itzultzen zuen...!"*

#### **Bazar Handian**

Guztira 25 lagun joan dira Istanbulera, 13 eta 27 urte bitartekoak (17 eta 18 urte-

koak gehienak) eta tartean gazteagoak diren 3 mutiko egon dira. *"Goizean turismo apur bat egiteko aukera izaten genuen eta 17:00etan hotelera bueltatzen ginen, gure emanaldiak prestatzera"*. Ermutik irten aurretik ikusi beharreko lekuen zerrenda egin zuten eta Turkian ikusi dituzten lekuen artean ikusgarrienak meskitak izan dira, Evaren arabera, *"eta bereziki, Meskita Urdina, Santa Sofia, Cistern basilika, Topkapi jauregia, Galata dorrea, Istanbulerako Bazar Handia..."*. Bertan denetarik erosteko aukera izan dute: pasminak, espeziak eta imitaziozko Converse zapatilak, besteak beste. Horrekin ba-

tera tratuetan aritzeko trebetasuna erakusteko aukera izan dute.

Evaren esanetan bidaia benetan berezia izan da guztientzat. Hegazkinean bidaiatzen zuten lehen aldia izan da batzuentzat eta, gainera, Baskonia Caja Laboral (Tau Ceramica) saskibalo taldeko jokalariekin egin zuten hegazkinean joanaldia. *"Istanbul txundigarria da, kontrastez beterik: oso leku modernoak daude, baina bat-batean otoitzera deitzen duten meskiten soinuk entzun daitezke kaletik. Neska-mutilek ikaragarri gozatu dute, eta guk ere"*, azpimarratzen du Eva Zubizarretak.

Dorleta Vidal



Alboka abesbatzako kideak Istanbulerako Meskita Urdinaren aurrean.

drogeteniturri



943 17 93 50  
Erdikokale 2, 1 - Elexoste  
www.euskalbirusa.org

Euskara eta euskaltegia  
egin biak zureak



Teresa Murga, 2. solairua  
Tel. 943 17 09 25



optika

itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

# JOSE ANTONIO UNANUE <sup>TXANGA'</sup>

## - Ikasketarik?

Ez nuen aukerarik izan. 12 urte t'erdirekin lanean hasi nintzen. Gogoan dut ama goizero etortzen zitzaidala lanera, kafesne beroan ogizopak eginda.

## - Ez ikasi izanaren damurik?

Beti pentsatu izan dut ikasteko aukera gehiago izan banu, buruan ditudan makina bat ideia eta kezka plaza-ratuko nituela, baina halakoxea izan da nire bizitza.

## - Mendizale amorratua izan zara...

Orain ere egunero egiten dut bueltaren bat, nahiz eta belanek ez didaten hainbeste laguntzen.

## - Ermutik Urkora eta Oizera. Zureak markarik onenak...

Biak ere apustu baten ondorioz egindakoak dira. Urkora 32 minututan eta Oizera ordu bat eta hamalau minututan iritsi nintzen.

## - Emaztea, non ezagutu zenuen?

Garai haietan klandestinitatean egiten ziren bilera haie-tako batean, Eibarren. Xabier Arzallus ere han ezagutu nuen.

## - Nola bertsoaletu zinen?


8 urte nituela Itziarren egon nintzen eta bertara etortzen ziren Lazkao Txiki eta beste bertsolari batzuk ere. Han harapatu ninduen bertsoak.

## - Txapelketa Nagusiaren finala da laster. Nor da zure favoritoa?

Andoni Egaña edo Amets Arzallus, bi horien artean ikusten dut txapelduna.

## - Zerk lasaitzen zaitu?

Mendira joan eta buelta



**Ermuarra eta zazpi anai arreben artean bostgarrena. Bi semeren aita eta aitona ere orain dela gutxi egina. Mendizalea eta Ahtletic-zale amorratua. Inguruko mendi eta basoak ondo ezagutzen dituen. Gizon alaia, zintzoa eta langilea. Aurrejubilatuta egin da duela gutxi eta orain bizitzaz gozaten ari da.**

bat emateak.

## - Zure bizitzako egun bat?

Emazteak lehen aldiz haurdun zegoela esan zidan eguna.

## - Miresten duzun pertsona...

Xabier Amuriza.

## - Abesteko ohiturarik?

Santi Totorika baldin badago, beti nago prest kanturako. 'Xalbadorren heriotza' da nire kanta.

## - Zenbat ordu pasatzen dituzu lotan?

3 ordurekin aski daukat. Beti izan naiz lo gutxi egitekoa.

## - Jateko platera...

Babagorriak eta makailua.

## - Etxeko lanetan zer

## moduz moldatzen zara?

Ondo, ez andreak nahi bezain beste, baina azken 20 urteak daramatzat etxeko bazkari eta afari guztiak prestatzen.

## - Kirolari bat?

Jesus Loroño txirrindularia eta Iribar futbol atezaina.

## - Osasunez zer moduz?

Ni beti egon izan naiz gaxo, baina jendeak purora erretzen edo mendian ziztu bizian ikusi izan nau beti.

## - Krisiak eragin ditu?

Inguruan asko nabaritu dut. 2010a gogorragoa izango delakoan nago.

## - Lagunartea, koadrila,

## beti zaindu izan duzu...

Hamabostero egiten dugu afaria eta astean zehar ere sarritan elkartzen gara gure emazteekin batera.

## - Bizitzarako zure lema...

Bakea eta askatasuna.

## - Nola ikusten duzu egoera politikoa?

Pausoak ematen ari direla dirudi eta 4-5 urteren buruan konponbidea etor daitekeela uste dut.

## - Irratia...

Arrate Irratia.

## - Ermuari zer falta zaio?

Parke eta zelaiak. Erreka estaltzea ere hanka-sartze handia izan zela uste dut.

## - San Martin Azokan zer moduz?

Aurtengoan oso ondo pasa dut. Ez naiz saiheskia saltzen egon eta koadrilakoe-kin giroaz gozatzeko aukera izan dut. Oso egun berezia izaten da eta aurtengoa bikaina izan dela uste dut.

## - Bete gabeko ametsik?

Maratoi bat amaitzea eta Everesteko gailurrera iristea.

## - Euskal Herriko txoko bat?

Urbia aldeko parajea.

## - Euskeraren geroaz zer diozu?

Inoiz baino jende gehiagok ulertzen duen arren, gehiago mintzatu beharra dagoela uste dut.

## - Besterik?

San Martinen hainbat urte-tan lanean fin-fin ari diren talogile emakumeek omenaldi bat merezi dutela uste dut. Egiten duten ahalegina izugarria delako. Biba zuek!

Asier Ibaibarriaga

*Yoga eskola*



**Sanatana  
Dharma**

San Roke 24, behea  
Informazioa: 943748593 edo 685722131 (Idoia)




**Zubiaurre 14**  
**Telef. 943 17 28 88**  
**48260 ERMUA**

*EGUZKI LORE*



# Arantza Moreno: “Kirolarekin gozatzeko jarraitu nahi dut”

Arantza Moreno ermuarrak Espainiako jabalina jaurtiketako txapelketa irabazi zuen pasa den urriaren 17an, Bartzelonan jokatu zen kadete mailan. 14 urte ditu Arantzak eta Lolo Garciak zuzentzen duen Ermuko Atletismo taldeko kidea da.

**L**au aldiz izan da Bizkaiko kros txapel-duna eta pisu jaurtiketan. Halaber, 600 metro eta 1000 metroko frogetan oso ondo aritu da.

- **Noiztik zabilta atletismo munduan?**

Orain dela 6 urte hasi nintzen. Kirola egitea betidanik izan dut oso gustuko eta hala hasi nintzen.

- **Jabalinako Espainiako txapel-duna zara...**

Jabalina jaurtiketa ez da

gehien landu dudana kirola, baina orokorrean atletismoko alor guztietan ondo moldatzen naiz.

- **Zer nolako aurkariak izan zenituen?**

Lehiakide gogorrak izan nituen. Halere, lehen jaurtiketa ona egin nuen eta 38,01 metro egin nituen, urteko markarik onena ezarri eta irabazi egin nuen.

- **Gurasoek zer diote?**

Beti izan ditut ondoan eta beraiek ere gustura daude ni



pozik ikusita.

- **Lesio aldetik zer moduz?**

Ez dut arazo handirik izan. Bizkarrak eta bernetako bi-kiak sufritzen dute gehien.

- **Aurrera begira zein asmo**

**duzu?**

Orain bezala kirolarekin gozatzeko segi nahiko nuke. Oso gustura nago entrenatzaile eta kideekin.

Asier Ibaibarriaga

Orain dela 20 urte inguru hasi zen Lolo Garcia ermuarra, Antonio Cid-en aginduetara Ermuko Atletismo taldearen alde lanean. Estatu mailako monitore titulua eskuratu ostean, makina bat haur eta gazte izan ditu Lolo Garciak bere aginduetara. Gaur egun, bi taldetan banatuta daude atletak. Nagusien maila, Antonio Cid-ek zuzentzen du eta eskola mailako haurrak Lolo Garcia-k zuzentzen ditu, Eider Gisasola, Cristina Rojas eta Lore-

na Lopezen laguntzarekin. 60 neska-mutil ari dira guztira eta ia denak lkastola, Ongarai eta Sallabenteko ikastetxeetako haurrak dira. 9 eta 14 urte bitartekoak dira guztiak eta era askotariko kirol arloak lantzen dituzte: lasterketa, pisu jaurtiketa, altuera jauzia, pertiga, jabalina jaurtiketa... Kirola lantzeko teknika eta bide batez, kirola eginez gozatzea dute helburu nagusi. Egunero dituzte entrenamenduak Betiondon, 16:00eta-

tik 18:00etara gaztetxoek eta 18:00etatik 20:00etara nagusiek. (lo-  
lokirolak@hotmail.com).



## Pub Dakota



Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

### Ardo banatzailea:

Riedel  
Avgstvs  
Clos Mogador  
Yllera  
Cantosán  
Luis Cañas

Hugel&Fills  
Anima Negra  
Trache  
Cillar de Silos  
Vriego  
Laurona

DISTRIBUCIONES **ARRAL**  
TELEFONOA: **943 17 60 75**

Artixeko eskolan aterata. Bertan agertzen dira: Mertxe Agirre 'Urizar-Etxebarri', Amaia Telleria 'Aurtenetxe', Rosario Aranburu 'Estakua-Azpi', Maria Jesus Uriarte 'Goiti-Azpikue', Amaia Aranburu 'Estakua-Azpi', Amaia Uriarte 'Goiti-Azpi', Idoia Iraeta 'Artixe', Iñaki Agirre 'Urizar-Etxebarri', Asun Uriarte 'Agarre-Gañe', Jesus Mari Telleria 'Aurtenetxe-Azpi', Arrate Uriarte 'Goiti-Azpi', Ana Telleria 'Aurtenetxe-Azpi' eta Josu Garitagoitia 'Marduané'.



**1974**  
**(MALLABIA)**



**(ERMUA)**  
**1947**

Argazkia 1947. urte inguruan atera zen. Ezkerretik eskumara: Pedro Mari Arana 'Zerukua', Eli Garitagoitia 'Liburio', Jose Ignacio Izagirre, Javier Acha, Alberto Arroitaonandia, Miguel Mari Areitioaurtena, Rafael Unamuno eta Urbano Careaga. Argazkian agertzen diren guztiak 1935eko kintoak dira, Alberto izan ezik.

**Okerrak zuzentzen...**

Urriko Ermuko argazki zaharrea, Nati Uriarte eta M<sup>o</sup> Teresa Ezkurdiaren abizenak falta ziren. Bestetik, Jaioneren lehen abizena Areitioaurtena da.



ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa



**Aldapa 1** **943 17 60 52**



URRETA

burdindenda

- ✘ *Etxea*
- ✘ *Tresneria*
- ✘ *Brikolaia*
- ✘ *Rielak*

- ✘ *Giltzak*
- ✘ *Zerrailgintza*
- ✘ *Kit altzariak*

*Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA*





Abenduak 7  
Zorionak printzesa! Aitxitxa, amama eta Oinatz lehengusuaren partez!



Urriak 16  
Zorionak Naroa zure 3. urtebetzean, muxu handi bat ama eta aitaren partez.



Azaroak 2  
Jaioberri den Ametsi zorionak eman nahi dizkiogu. Aita ama eta Naroaren partez, muxu handi bat.



Abenduak 13  
Zorionak eta besarkada handi bat etxekoan partez.



Azaroak 24  
Orain dela 11 urte bai gertatu zela zerbaít 'nabarmena' gure bizitzetan. Zorionak maittia, etxekoan partez!!



Azaroak 13  
Zorionak amatxo. 3 musu handi Ainhoa, Maite eta aitaren partez.



Abenduak 1  
Zorionak Itxaso aitite-amama eta etxekoan partez!



Abenduak 11  
Zorionak Urko zure bigarren urtebetzean, maite zaituen familia guztiaren partez.



Abenduak 1  
Zorionak Iraitz eta muxu handi bat Manex, ama eta aitaren partez. Guapisima!



Abenduak 19  
Zorionak Malen eta muxu handi bat etxekoan partez, eta bereziki Nerea, Jone eta Aitzolen partez. Ondo pasa!



Abenduak 3  
Zorionak Markel zure lehen urtebetze egunean ama eta aitaren partez.



Abenduak 4  
Zorionak txiki! Jada urte bat! Muxu handi bat Jone, ama eta aitaren partez.



Azaroak 20  
Zorionak Ane eta muxu handi bat familia osoaren partez.



Azaroak 30  
Zorionak Mikel!!! Musu handi bat guztion partez zure 9. urtebetzean!



Zorionak zure bigarren urtebetzean Beñat! Segi horrela txapeldun.



Ane, Patxi eta Itziar Praderaren umea, jaió da. Zorionak eta musu handi bat Mallabiko familiaren partez (aittite-amamak: Luis eta Lurdes; izeko-osabak: Mikel eta Ainara).



Abenduak 26  
Zorionak Jon zure 3. urtebetzean aita eta amaren partez. Musu handi bat.

Hurrengo alerako azken eguna:  
**ABENDUAK 14**

**Senén**

[www.joyeriasenen.com](http://www.joyeriasenen.com)

**MALLA**  
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50



## José Antonio Ballesteros

**APFEko  
LEHENDAKARIA**

# Zergatik joan gara Zaldibarrera?

APFEko zuzendaritzak Betiondoko instalazioak erabilgarri jarri zirenetik, etengabe eskatu dio Udal Kirol Erakundeari (UKE) eta kirol zinegotzigoari, prezioen egokitzea eta malgutasun handiagoa. Azkenean, APFE-k asteburuko futbol-partidak Zaldibarren jokatzea erabaki du.

Iritzi guztiak errespetatuz, ezin ditugu alde batera utzi datu objektiboak eta errealitatea. Gaiaren inguruan kirol zinegotzigoak bere iritzia plazaratu du komunikabideetan (testuak [www.apfe.es](http://www.apfe.es) orrialdean kontsulta daitezke). APFE-tik eragiten digun errealitatearen berri eman nahi dugu, beste talde batzuek ere, gure egoera beretsuan daudela dakigun arren.

-Zalbibarren futbolean jokatzeke, 150€ ordaindu behar dugu asteburu bakoitzeko. APFEko txapelketan (Liga eta Kopa barne) 30 jardunaldi daude futbol-denboraldi bakoitzean. Beraz, 4.500€ ordainduko ditugu denboraldi bakoitzean. Kontuan hartzen badugu APFE-ko 10 taldeetan 200 jokalaririk eman dutela izena, jokalaririk bakoitzak denboraldiko 22,5€ ordainduko ditu.

-Ermuan, aldiz, Betiondon jokatzea ahal izateko, ezinbesteko baldintza da UKE-ko bazkide izatea. Zer dakar horrek? Denboraldia irailean hasten da eta urte bukaera bitartean jokatzeke 54,7€ ordaintzea beharrezkoa da. Hurrengo urtean denboraldia bukatu arte jokatzeke, 108,1€ ordaindu behar dira. Laburbiduz, denboraldi bat soilik jokatuko duenak (batzuek frogatzea baino ez dute nahi) 162,8€ ordaindu behar dute. Ohiko jokalariek bestalde, urtean 108,1€ ordainduko dituzte.

Zaldibarko eta Ermuko futbol


zelaien artean ez dago ezberdintasunik instalazioei dagokienez. Zer da beraz urte hauetan eskatu duguna? Malgutasuna. Horixe baino ez. Besteak beste, ikasleentzat prezio bereziak, lauhilekora egokitutako prezioak, merkatuko prezioetara egokitzapena eta APFE-rako prezio bereziak.

Proposamenak eta ideiak hor daude. Beti egon gara negoziatzearen alde, baina erantzuna beti izan da bera: UKE eta kirol zinegotzigoak ez dute amorerik eman.


Ez dugu politika hori ulertzen, are gutxiago oro har eta batez ere gazteen artean kirola sustatzea helburu izan beharko litzatekeenean. Era berean, ez dugu ulertzen, zerbitzu publikoa errentagarri bihurtu nahi izatea enpresa pribatua bailitzan.

Irtenbidea Udalaren eta bere zuzendaritza taldearen esku dago. Hausnarketa beharrezkoa dela pentsatzen dugu. Ermuan, herrikoak diren instalazioak edukita, Zaldibarrera joan behar izatea ez baita onargarria.

**Negoiatzearen alde gaude, baina erantzun bera jasotzen dugu beti**



**IKASTOLA**  
38 urte Ermua euskalduntzen



**TXINDURRI  
TALDEA**  
Tokian tokiko



**Enter**  
INFORMÁTICA  
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA  
VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: [enter-i@arrakis.es](mailto:enter-i@arrakis.es)



-ARRAINDEGIA  
-ITSASKIAK  
-ARRAIN FRESKOAK ETA  
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA  
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA



# APFE-ren auziari buruz baduzu informaziorik? Zer iruditzen zaizu?

Bai badakit Zaldibarrera joan direla jokatzera, Ermuan baino askoz merkeagoa delako. Ermuko jendea, gainera zalea dena, herritik kanpo jokatzera joan behar izatea lotsagarria da.




**David Cordón. 31 urte. Langilea**

Bai, agiri bat irakurri dut eta bertan azaltzen zen APFE-ko taldeek Zaldibarrera joatea erabaki dutela, hemen jokatzera baino merkeagoa delako. Gaizki ikusten dut, jar daitezela hemen erraztasun gehiago.



**Gentzane López. 34 urte. Langilea**

Ez dut ezer entzun. Baina merkeagoa delako Ermutik kanpora joatea erabaki badute, ez zait logikoa iruditzen. Hemen dauden instalazioak egonda, ez dut ulertzen nola ez diren gehiago aprobetxatzen eta akordio batera heltzen.



**Txetxu García. 40 urte. Langilea**

Bai, entzun dudanez, futbol zaletuak Zaldibarrera joan dira, hemen baino 3 aldiz merkeagoa delako. Gaizki iruditzen zait. Uste dut, oro har, Ermua garestiagoa dela eta hori, beste froga bat baino ez da.



**Manolo Merino. 35 urte. Langilea**

Bai kalean entzun dut, Betiondoko instalazioetan jokatzera, Zaldibarren baino garestiagoa ateratzen zitzaiela eta Betiondon jokatu ahal izateko kiroldegiko bazkide egitera behartzen dituztela. Ez dut ondo ikusten.



**Rocío Álvarez. 32 urte. Langilea**

Bai, Ermuan urte osoan jokatzera Zaldibarren jokatzera baino garestiagoa zela entzun dut, gainera kiroldegiko bazkide-tza egin behar zutela Betiondon jokatzeko. Lotsagarria iruditzen zait.



**Zaloa Cámara. 31 urte. Langabetua**

Testua: Alazne Aiestaran



## ZUBIAURRE

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61 Faxe. 943 17 42 17  
48260 ERMUA



**ez zaitetz atzean gelditu, zatoz guregana!**

Diputazio, 15 - behea

943 17 01 88

**UMEENTZAKO  
ZINEA****Hilak 6***'Vamos a la luna'***Hilak 13***'Noche en el museo 2'***Hilak 20***'La leyenda de Santa Claus'***Hilak 27***'Harry Potter y el misterio del príncipe'*

17:00etan. Lobiano Kultur Gunean.

**ERAKUSKETAK****Hilaren 1etik 12ra**

Argazkiak: 'Gureak ere badira neska-mutiko hauek' (Laguntzarik gabeko ume eta gazte-txo etorkinei buruzko erakusketa).

**Hilaren 14tik 30era**

Pintura: Udal Margo Eskolako ikasleak.

Lanegunetan

18:00etatik

20:00etara.

Asteburuetan

12:00etatik

14:00etara eta

18:00etatik

20:00etara.

Lobiano Kultur Gunean.

**ZINE-KLUBA****Dokumentalen zikloa****Hilak 3****Hilak 10****Hilak 17**

(Tituluak zehaztu barik).

19:00etan eta

21:30ean. Lobianon.

**MUSIKA****Hilak 5**

Folk Kontzertua: Alma de Andalucía, Flor de Tomillo eta Zumake taldeak. 19:00etan. Lobianon. Sarrera doan.

**Hilak 16 eta 17**

Kontzertua: Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19:30ean. Lobianon. Sarrera doan.

**Hilak 19**

Blues Kontzertua: Big Mama Montse Blueslab3. 20:00etan. Lobianon. Sarrera: 5€.

**Hilak 24**

Gabon gauaren kalejira. 21:00etan. Orbe Kardinalaren plazatik.

**Hilak 26**

Ermuan Kantuan. 12:30ean. Orbe Kardenalaren plazatik.

**UMEENTZAKO  
EKITALDIAK****Hilak 3**

Haurrentzako jolasak (euskararen eguna). 16:30ean. Orbe Kardinalaren plazan.

**Hilak 5**

Ipuin kontaketa: Maite Arreseren eskutik. 17:30ean. Udal Liburutegia.

**Hilak 24**

Olentzero txikia. 11:00etan. Orbe Kardinalaren plazatik.

**Hilaren 26tik 4ra**

Gabonako Haur Parkea: hainbat ekitaldi. Goizez eta arratsalde. Udal Kiroldegian. Sarrera: 2€.

**Hilak 28**

Haurrentzako antzerkia: 'Babili-Glub', Galitoo taldearen eskutik. 17:00etan. Lobianon. Sarrera: 3€.

**Hilak 29**

Haurrentzako antzerkia: 'Armando Risottoren menu berezia'. Txo Titelles taldearen eskutik. 17:00etan. Lobianon. Sarrera: 3€.

**ANTZERKIA****Hilak 3**

'Ogiyik karri entzun semia'. Txirene Antzerkia. 19:30ean. Lobianon. Sarrera doan.

**Hilak 4**

'La tarde cartolina davanti'. Meglio tarde che mai taldea. 22:15ean. Lobianon.

**Hilak 7**

'Entremeses cotidianos'. Izarraitz taldea. 22:15ean. Lobianon. Sarrera doan.

**Hilak 11**

'Secando charcos'. Agerre Teatro. 22:15ean. Lobianon. Sarrera: 5€.

**Hilak 12**

'Bodas de sangre'. Trake taldea. 20:00etan. Lobianon. Sarrera: 5€.

**BESTELAKOAK****Hilaren 2tik 8ra**

Gaztela-Mantxako kultur astea: hainbat ekitaldi.

**Hilak 31**

Olentzeroaren kalejira. 18:00etan. Orbe Kardinalaren plazatik.

Patxi Lopez

**Harategia****M. LAZKANO****BERTOKO OKELAK***Geure Baserrian**Hazitako Txalak*

GEUK GIZENDUTAKO

ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k

Tfnoa. 943 17 05 84

**Ermua****OPTICA  
J. CASADO**Lenteak  
Audifonoak  
Graduatutako Antiajuak  
Eguzkitako AntiajuakKantabria, 2  
Tfnoa. 17 33 57**ERMUA****MIGUEL  
Harategia**TXORIZOAK  
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3

☎ 17 05 63

**ERMUA**

(Bizkaia)

**hamburguesería  
TITANIK***Pintxo dastaketa  
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83





# “Bezeroek badakite zerbitzuen kalitate kontrola hauen prestaziorako bermea dela”

Euskadin honezkero 267 establezimenduk jaso dute turismo arloko enpresen zerbitzua, instalakuntzak eta gestioa zertifikatzen duen Kalitate Turistikoaren Q-a. Bereziagarriak, klasifikazio ofizialari erreparatu gabe, enpresa turistikoetan eskusiboki eta Kalitate arau batzuen barruan aplikatzen diren produktuaren zein zerbitzuaren eskakizunak jasotzen ditu. Azken batean, bezeroen asebetetzera eta dituen itxaropenen betetzera bermea da. Horrekin batera, exigentzia maila txikiagoa baina epe luzerako konpromisoa duen negozio txikienei bereziki zuzendutako programan, Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 274 establezimendu daude. Bereizkuntzak, formakuntza eta hobekuntzarako konpromisoa, establezimenduen kudeaketan dedikazioa eta zorrotasuna errekonozitzen ditu, kalitatearen hobekuntzarako planen bitartez. Helburu nagusia etengabeko hobekuntza da, bezeroaren zerbitzura.

**• Zergatik egin duzue turismoaren sektorearekin lotutako sistema eta kalitate-programetako batzuen aldeko apustua?**

ISON zertifikatutako gestio sistema izan arren, espeziifikoki turismoko kalitate sistema batean zertifikatuta egoteak bai guri eta baita bezeroei ere saltzen dugun produktuaren eta bezeroak eskatzen duen zerbitzuaren gaineko informazio zehatzagoa eskaintzen digu.

**• Zertifikatutako Kalitate Turistikoaren Q-a bezalako kalitate sistemak nolako abantailak ekarri dizkio zure erakundeari?**

Kalitate turistikoaren zertifikatuak ahalegin guztiak zerbitzuaren hobekuntzara bideratzea dakar azken helburu moduan.

**• Ezarpenaren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue, barne funtzionamenduari begira? Eta kudeaketa gaietan? Eta azpiegitura kontuetan?**

Orokorrean, sailen arteko koordinazioa hobea dugu, barne komunikazioari esker; eta, kalitate bilerekin, sailletako errealtateaz gehiago jabetu gara. Azpiegiturari dagokienez, etengabeko hobekuntzak, gure bezeroen gogobetetze inkestak eta barne eta kanpoko auditorien emaitzek ematen digute behar dugun informazioa epe motzera edo luzera inbertsioak egiteko orduan.

**• Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?**

Zerbitzuen kalitate kontrola hauen prestaziorako bermea da eta bezeroek horrela ulertzen dute. Hor sartu ditzazkegu zerbitzuen segurtasunarekin lotutako guztia (arlotan bakterioak, balneario eta sukaldaritza zerbitzuak, bezeroaren jabetza) establezimenduko zerbitzu guztien gestio informatizatua.

**• Zer esango zenieke turismo arloko profesionalen Kalitate Turistikoaren Q-aren ezarpenari buruz?**

Zerbitzu prestazioaren kalitate sistema honek gure egoeraren aurreko eskariaren bilakaera zehazten ahalbidetzen digu eta, horrela, gure bezeroen beharrei aurre hartzen.

**• Beste enpresari batzuei kalitate sistema zertifikatuarekin lan egiteko gomendatuko zenieke?**

Noski! Hasieran lan erantsia dirudienaren emaitzak epe laburrean nabari daitezke.

**• Kalitate Turistikoaren Q-a prozesuak zure erakundearen kokatze lehiakorrakoa ahalbidetzen du?**

Gaur egun oso zaila da sektorean lehiatzea zertifikatutako kalitate sistema izan ezean.

**• Kalitate Turistikoaren Q-aren kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskume-**



**nen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke garrantzitsuen edo erabilgarrien modura?**

Gure zerbitzuen Diseinu eta Garapen arloa, asko harrituta lagatzen dituen, hedatuago baitago objektuen fabrikazioarekin lotzen duen ideia zerbitzuarekin lotzen duena baino.

**• Kalitatearen kultura zure erakundearen bultzatze nolako aldaketak sartu dituzue edo sartzeko asmoa duzue?**

Etengabeko hobekuntza taldeak dihardugu garatzen, prozesuen arabera banatuta, hainbat sailen parte-hartzearekin; eta batzorde birtualak ere garatzen dihardugu. Azkenik, formazio ikastaroen balorapena egiten dugu denbora errealean, intranetaren bidez, hartzaileen zein arduradun zuzenen eskutik.

**Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorrakoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:**

**Jardunbide egokirako programak:** helburua enpresarioen “profesionalizazioa” eta jomuga-kontzientzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 274 establezimendu daude.

**Kalitate Turistikoaren Q-a programa:** bezeroen itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 267 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereziagarria.

**EFQM Bikaintasun ereduak:** erakundeek kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Ereditu honetan parte hartzen diharduten 17 establezimendu daude Euskadin.

**JARRI KALITATE  
TURISTIKOAREN Q-a  
ZURE ESTABLEZIMENDUAN**

94 607 75 86 / 94 404 74 70  
www.turismoa.euskadi.net  
www.euskalit.net



## UME ETA HELDUENDAKO PSIKOLOGIA KABINETEA

### ARRATE GARITAONANDIA

- ESTRESA
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ERLAJAZIOA
- FOBIAK
- ALZHEIMER-TERAPIA
- IKASTEKO TEKNIKAK
- UMEEN ARAZOAK
- AUTOESTIMA
- MEMORIA LANKETA

AURRERA EDIFIZIOA 943 20 22 66  
Urtzaile 1, 1. Eskuma 646 233 182



"Adituak gara ondo  
elikatzen irakasten"

AINARA IRIONDO ANSOLA  
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomaturia

Komentukua 1, behea. 943 17 63 72

# Irale

horts klinika

## Leire Irazu Garitaonandia

- Ortodontzia
- Pedriodontzia
- Odontologia orokorra
- Aho zirujia
- Inplanteak

Zeharkale 8, behea 943 17 71 34  
www.irale.com

**ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA**

- Kontsultak eta errekonozimendu medikoak
- Fisioterapia
- 3. adinekoen mantenimendua
- Esfortzu frogak
- Urgentziak
- Masaje terapeutikoak eta kirol masajeak
- Laneko patologia eta erizaintza
- Kirol errekonozimendu medikoak
- Ermuko IMDra abonatuak % 10eko beherapena lesio kontsultetan
- Odol ateratze zentroa, egun berean erantzuna jasoz

**ERA GUZTIAKO MUTUA ETA ASEGURUEKIN KONTZERTATUA**

Diputazio 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16  
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@osuskalnet.net

Inplanteak  
Ortodontzia  
Periodontzia  
Horts-zuriketa / Estetika dentala  
Odontologia orokorra  
Protesiak  
P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui  
Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

# OSASUN GIDA

**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOIA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44

fisioterapia  
eta osteopatia  
zentroa  
**aitziber**

Aitziber Fernández  
Telf. 943 17 60 95  
629 88 70 89  
Sexto Centenario 13.behea  
48260 ERMUA (Bizkaia)

**HORTZklinika**  
nerea iñiguez

- Odontologia orokorra
- Estetika dentala
- Inplanteak
- Ortodontzia
- Protesiak
- Periodontzia
- Zirujia

San Ignazio, 4 ERMUA  
943 03 05 12



Clínica Oftalmológica  
**RECALDE**  
Oftalmologi Klinikka

Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR - Tfnoa.: 943 201 844

**MIOPIA EBAKUNTZAK  
FEMTOSEGUNDO  
LASERRAREKIN**